





Gida hau BERRITZEGUNEKO Hezkuntza Premia Bereziko Aholkulari eta BIGARREN HEZKUNTZAKO Ikastetxeko Orientatzaileei zuzenduta dago. Bere helburua Unibertsitatean hasi aurretik desgaitasunak dituzten ikasleen arretarako informazioa eskaintzea da. Gida hau zerbitzuko web orrian eskuragarri dago.

2014-2015 ikasturtea



Aurkibidea

1. Eginkizuna	5
2. Araudia:UPV/EHUko estatutuak.....	6
3. Ezgaitasunak dituzten ikasleen erroldaren bilakaera.....	8
4. Giza taldea.....	10
5. Ardatz Estrategikoak	11
6. Unibertsitate sarrerarako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arretarako programa.....	12
6.1. Helburuak.....	12
6.2. Jarduerak	12
6.3. Egokitzapenak sarrera probetan.....	13
6.3. Sarrera probetako egokitzapen eskaerarako prozedura	14
7. Glosarioa.....	16
8. Zerbitzuarekin harremanetarako datuak	16





1. EGINKIZUNA

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak ezintasunak dituzten ikasleen aukera-berdintasunaren printzipioa bermatu, ikasketetarako sarbidea erraztu, unibertsitateko zerbitzuak jaso eta unibertsitateko bizitzan parte hartzea errazteko eginkizuna du.

Eginkizun hau 2012ko ekainean Gobernu Kontseiluak onartutako UPV/EHUko Inklusio II. Planaren barnean dago.



2. ARAUDIA: UPV/EHUko Estatutuak

- **17/2011 DEKRETUA**, otsailaren 15ekoa, **Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak** onartzen dituenak.

LEHENENGO TITULUA. UPV/EHUaren izaera eta helburuak

4. art -

2.- *UPV/EHUK honako hauek sustatuko ditu:*

- b) Premia bereziak dauzkaten pertsonak unibertsitateko kideen artean izatea.

3.- UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta diferentziaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rolak eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkaritza parekatua.

II. TITULUA Unibertsitateko kideak

V. KAPITULUA Premia bereziak dauzkaten pertsonak

67. art -

UPV/EHUK ekintzak bultzatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera berdintasun berberak daukatela ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura



68. art –

1. – UPV/EHUK bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipatutako pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean.
2. – Ezintasunak dauzkaten ikasleak eta unibertsitateko gainerako kideak ezin izango dira izan diskriminatuak beren ezintasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitatara sartzeko prozesuan, bertan ari direnean, eta titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.
3. – Ezintasunak dauzkaten ikasleek horrelakorik behar balute, unibertsitateko ikastegiek eta sailek esanguratsuak ez diren egokitzapen curricularrak egingo lituzkete eta ikasleen beharretara moldatutako tutoretza espezifikokoak ezarriko.
4. – UPV/EHUK egokitu egin beharko du bere ingurunea, legeriak xedatutakoari jarraiki, ezintasunak dauzkaten pertsonak oztoporik gabe ibili ahal izan daitezen bertan.
5. – UPV/EHUK kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonen lana emateko arautegietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.

3. EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEEN ERROLDAREN BILAKAERA

	2009-2010			2010-2011			2011-2012			2012-2013			2013-2014		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
IKUSMENA	11	16	27	17	16	33	13	12	25	15	10	25	18	10	28
ENTZUMENA	14	9	23	19	11	30	13	9	22	17	6	23	15	7	22
MOTOREA	50	60	110	51	56	107	39	43	82	38	41	79	40	31	71
BESTE BAT**	81	57	138	95	67	162	86	57	143	82	69	151	76	70	146
GUZTIRA	156	142	298	181	151	332	151	121	272	152	126	278	149	118	267*

* 2012-2013 ikasturtean 278 erroldatutako ikaslelik 52 titulatu dira eta 45k ikasketak utzi dituzte. 2013-2014 ikasturtean 86 ikasle berri sartu dira. (3.1. taula ikusi)

**Kategoria honen barruan iraupen luzea duten edo tratamendu bereziren bat behar duten gaixotasunetatik eratorritako patologiak biltzen dira.





3.1. ERROLDAN GEHITU DIREN EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLE BERRIEN GARAPENA


	2009-2010			2010-2011			2011-2012			2012-2013			2013-2014		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
IKUSMENA	2	4	6	8	5	13	4	2	6	2	3	5	7	2	9
ENTZUMENA	4	2	6	10	3	13	4	3	7	3	6	9	4	2	6
MOTOREA	13	15	28	8	11	19	9	11	20	11	9	20	12	11	23
BESTE BAT*	42	23	65	30	22	52	18	16	34	28	20	48	25	23	48
GUZTIRA	61	44	105	56	41	97	35	32	67	44	38	82	48	38	86

* Kategoría honen barruan iraupen luzea duten edo tratamendu bereziren bat behar duten gaixotasunetatik eratorritako patologiak biltzen dira.

Ikusi informazio gehiago ["EHU eta ezgaitasuna zenbakitan"](#) zerbitzuko web orrian.



4. GIZA TALDEA





5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Informazioa, Aholkularitza eta Orientazioa

- Unibertsitate sarrerarako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta
- Ezgaitasunak dituzten sartu berrien ikasleen harrera
- Ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta unibertsitateko egonaldian
- Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen laneratzea

Aukerak Parekatzea

- Giza baliabideen kudeaketa: Keinu Hizkuntzako Interpreteak eta Hezkuntzako Laguntzarako Espezialistak.
- Laguntza produktuak edo/eta baliabide teknikoen kudeaketa: irakaskuntzarako laguntzak (FM emisorea, kopia bikoitza duen koadernoak, ...)

Prestakuntza eta Sentsibilizazioa

- Formazioa: Unibertsitateko Komunitateari zuzenduriko ikastaroak (IIP, AZP, ikaslegoa), biltzar eta jardunaldietan partaidetza, ...
- Sentsibilizazioa: materialak sortzea, jarduera eta hitzaldien antolaketa, sail desberdinekin lankidetza, ...

Irigarritasuna

- Irigarritasunezko eskaeren arreta
- Komunikaziorako irigarritasuna eta irigarritasun arkitektonikoa



6. UNIBERTSITATE SARRERARAKO EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO ARRETARAKO PROGRAMA

6.1. HELBURUAK

- Unibertsitatera sartzeko eta sarrera probetarako orientabidea, argibideak eta aholkuak emateko komunikazio-bideak finkatzea.
- Ikasleek Unibertsitatean izango dituzten behar berezien ebaluaketa egitea eta baliabideen gestioak gauzatzea.

6.2. JARDUERA

- Sarrera probetan egokitzapenak egiteko prozedurari buruzko informazioa ematea Berritzeguneei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroei eta Helduentzako Irakaskuntza Zentroei.
- Berritzeguneei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroek eta Helduentzako Irakaskuntza Zentroek eginiko kontsultak erantzutea.
- Unibertsitate-aurreko ezgaitasunak dituzten ikasleen egokitzapen-eskaerak kudeatzea, unibertsitatera sarrera probetan.
- Sarrera probetako epaimahaikideei ezgaitasunak dituzten ikasleen arretarako aholkularitza ematea.
- Ezgaitasunak dituzten ikasleek egin nahi dituzten tituluei buruzko informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematea.



6.3. EGOKITZAPENAK SARRERA PROBETAN

Motore urritasuna duten ikasleentzako egokitzapenak:

- Gela irisgarria
- Laguntzailea
- Denbora gehiago
- Transkripzioa
- Aparteko gela
- Egokitutako altzariak

Ikusmen urritasuna duten ikasleentzako egokitzapenak:

- Hizkiak handitzea
- Azterketen egokitzapenak IBZk eginda
- Denbora gehiago
- Aparteko gela ekipamendu espezifikoarekin eta azterketa egiteko
- Lupa erabiltzeko baimena

Entzumen urritasuna duten ikasleentzako egokitzapenak:

- Zeinu Hizkuntzako Interpretza
- FM emisorea
- Denbora gehiago
- Lehenengo ilaran esertzea
- Ikasleari zuzeneko informazioa eman

Beste motako ezgaitasunak dituzten ikasleentzako egokitzapenak:

- Denbora gehiago
- Komunera joateko edo gelatik ateratzeko baimena

Ikasteko Zailtasun Espezifikoak dituzten ikasleentzako egokitzapenak:

- Denbora gehiago
- Azterketa hasieran irakasleak azterketa irakurri
- Azterketaren egiturari buruzko informazioa eman denbora antolatzeke eta jarraibideak azpimarratu zuzenean ikasleari
- Azterketa bukaeran irakasleak azterketaren errebisioa egin ulergarria dela eta galdera guztiak erantzun dituela ziurtatzeko
- Ordenagailua (posible den irakasgaietan)
- Tokia erreserbatu (distrakzioak ekiditeko)
- Arreta deiak
- Zuzentzaileentzat dislexiari buruzko informazioa

Autismoaren Espektroko Nahasmenak (AEN) dituzten ikasleentzako egokitzapenak:

- Denbora gehiago
- Komunera joateko edo gelatik ateratzeko baimena
- Azterketaren egiturari buruzko informazioa eman denbora antolatzeke eta jarraibideak azpimarratu zuzenean ikasleari
- Ordenagailua (posible den irakasgaietan)
- Tokia erreserbatu edo aparteko gela
- Azterketak egingo diren instalazioak aldeztu aurretik bisitatzea



6.4. SARRERA PROBETAKO EGOKITZAPEN ESKAERARAKO PROZEDURA

BATXILERGO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN 2015eko SARRERA PROBETARAKO EGOKITZAPENEN ESKAEREN JARRAIBIDEAK	
OTSAILA	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek pertsona bat izendatu beharko dute arduradun ikastetxeko egokitzapen eskaera kudeatu eta jarraipena egiteko
MARTXOAREN 13a BAINO LEHEN	Ikastetxeak arduradunaren hurrengo datuak bidaliko ditu discap@ehu.es helbidera: • Izen-abizenak • NAN zenbakia • Jaiotze data • Helbide elektronikoa (konpartitu gabeko kontua) • Ikastetxearen izena, kodea eta telefonoa Datu hauekin Zerbitzuak arduradunari sarbiderako kodeak bidaliko dizkio UPV/EHUko web orriaren bidez egokitzapenen eskaerak egiteko. Neurri hauek Datu Pertsonalak Babesteko Legearen ondorioz ezarri dira
MARTXOAREN 16tik – 27ra	Eskaerak bideratzeko hurrengo dokumentazioa pdf edo word formatuan eskaneatzea beharrezkoa izango da, beti ere ikaslearen egoeraren arabera. • <i>Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien zerrendetan dauden ikasleak:</i> Berritzeguneko egokitzapen txosten bat eta desgaitasun mailaren aitorten agiria, eta agiririk ezean, mediku txostena edo/eta txosten psikopedagogikoa. • <i>Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien zerrendetan ez dauden ikasleak:</i> Ikastetxeko egokitzapen txosten bat eta desgaitasun mailaren aitorten agiria, eta agiririk ezean, mediku txostena edo/eta txosten psikopedagogikoa. Egokitzapen txosten ereduak zerbitzuko web orrian daude eskura: www.ehu.es/discapacidad



APIRILAREN 13tik MAIATZAREN 22ra	Zerbitzuak eskaerak baloratuko ditu eta ikastetxeko arduradunekin harremanetan jarriko da eskaerak zehazteko
MAIATZAREN 25etik EKAINAREN 2ra	Ikastetxeko arduradunak ikasleak ikasketak gaintitu dituela edo ez egiaztatu beharko dio zerbitzuari jakin bezain laster, eskaera zer deialdirako kudeatu behar den jakiteko.
EKAINAREN 3	Sarbide Probarako Zuzendariak epaimahaien osaeraren eta tokien berri emango dio Zerbitzuari.
EKAINAREN 5 eta 8	Zerbitzuak egokitzapenei buruz informatuko dio epaimahaiari.
EKAINAREN 8 eta 9	Zerbitzuak Ikastetxeko arduradunari epaimahaiak egokitzapenei buruz informazioa jaso duela baieztatuko dio.

Harremanetarako pertsona:

Mamen López Lizarralde
T. 943 015184
discap@ehu.es

www.ehu.es/discapacidad



7. GLOSARIOA

IRISGARRITASUNA: inguru, produktu edo zerbitzu batek izan beharreko ezaugarri multzoa da, pertsona guztiek erosotasunez, berdintasunez eta segurtasunez erabil dezaten, batez ere ezintasunen bat dutenek.

EZINTASUNA: Ezintasunaren Funtzionamenduaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenaren (CIF) arabera, 2001an OMEk argitaratua, ezintasuna terminoak funtzio eta gorputz egituraren urritasunak jasotzen ditu, hots, jarduerak burutzeko gaitasunaren mugak eta hiritarrak gizartean parte hartzeko dituen murriztapenak.

GUZTIENTZAKO DISEINUA EDO DISEINU UNIBERTSALA: jakintzat ematen du gizatasuna ezin dela neurtu gaitasun, neurri edo estandar batzuen arabera, baizik eta orokorrean ikusi behar dela, aniztasuna arautzat hartuta eta ez salbuespentzat.

AUKERA BERDINTASUNA: zuzeneko edo zeharkako bazterkeria eza da eta baita ere neurriak hartzea, ezintasun bat duen pertsona batek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko dituen desabantailak saihestu edo orekatzeko.

JARDUERARAKO NEURRI POSITIBOAK: laguntza bereziak dira, ezintasun bat duten pertsonen bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean erabat parte hartu eta sartzeko aurki ditzaketen desabantailak edo zailtasun bereziak saihestu edo orekatzeko, ezintasun mota eta maila ezberdinak kontutan hartuta.

NORMALKUNTZA: ezintasuna duten pertsonen ere bizitzan parte hartzeko eskubidea izateko printzipioa da, leku eta giro berdinetara sartu eta edozeinek eskura dituen ondasun eta zerbitzuak erabili.

BIZITZA INDEPENDIENTEA: ezintasuna duen pertsonak bere bizitzaren gainean erabaki dezake eta bere inguruan parte hartu, bere izaeraren garapen askea helburu izanda. Beharrak asetzeko zailtasunak dituzten pertsonak diren heinean, pertsona bereziak baino, premia ezberdinak dituzten pertsonak dira.

